

PRENTSAURREKOA. AURKEZPENA

Jose Miguel Ayerza. Adegiko Zuzendari Nagusia 2023ko maiatzaren 24a. Adeg.

Urtero bezala, gure Batzar Nagusiaren eta Enpresa Egunaren bezperan, agerraldia egiten dugu zuen aurrean enpresei egin diegun Inkesta aurkezteko eta egoera ekonomikoaren balorazioa egiteko.

Prentsa-oharrearik inkestaren xehetasunak daude. Era berean, prentsaurrekoko materiala duen karpetan Enpresaren Eguneko egitaraua eta banatuko ditugun sarien zerrenda eta sari horiek jasoko dituzten enpresak dituzue.

Inkestaren emaitzei dagokienez, aldaketa txiki batzuekin, urte hasierako emaitzekin bat datoze ondoriozta dezakegu.

Enpresen konfiantza apur bat suspertu da, urtarrilean baino puntu erdi gehiago; enpresen batez besteko fakturazioa +%1,7 hazi da; pedidoak +%2,7 hazi dira industriari eta zerbitzuen sektoreari esker, eta eraikuntzan gelditu egin dira; eta, ekoizpen-ahalmenaren erabilera, % 84 inguruan kokatzen da, soldatapeko enpleguaren hedapen handiko testuinguruan. Azpimarratu behar da merkataritzan eta ostalaritzan hamar puntu gutxiago direla.

Enpleguak, bestalde, erresilientzia handia erakusten du. Horren erakusgarri da enpresen % 91k enplegu-mailari eustea edo handitzea aurreikusten dutela, urtarrilean baino puntu erdi gutxiago eta iaizko irailean baino puntu eta erdi gutxiago. Horri gehitzen badiogu enpleguak urte hasiera ona izan duela, uste dugu Gipuzkoan 3.000 eta 4.000 enplegu artean sor daitezkeela aurten.

Kezka-faktoreei dagokienez, lehengaien eta energiaren hornidura eta prezioa, lan-kostu handiak eta langile kualifikatuak kontratatzeke zailtasunak dira enpresen kezka nagusiak.

Jarraian, salmenten errentagarritasunaren jaitsieraren kezka aipatu behar da, enpresen % 30ek adierazi baitute.

Gehien handitzen den kezka-faktorea banku-finantzaketarekin lotutakoa da, 2015etik ikusten ez ziren mailetan kokatzen baita.

Beharrezkoa den zuhurtasunez, desazelerazio ekonomikoak eta inflazio handiak markatutako ingurune makroekonomiko zalantzazko honetan, lurraldeko ekonomia % 2 inguru hazi daitezkeela aurreikusten dugu, urte hasieran egin genuen aurreikuspenaren maila gorena, 2022an hazi zen %4,2 aren erdia baino gutxiago, alegia.

Testuinguru konplexu honetan, Adegik Gipuzkoako hitzarmen nagusiak negoziatu eta adostu ditu, joan den maiatza ezkerotik: Ostatuak, Papera, Eraikuntza, Arte Grafikoak, Elikagaien Industria eta Merkataritza, Ehungintzaren Merkataritza, Erresidentziak eta Metala. Sindikatu guztiek era batera edo bestera parte hartu duten akordio hauetan.

Akordio horiek ahalbideratzen duten bake soziala, eragile sozialek Gipuzkoari, bertako enpresei eta langileei egiten diegun ekarpenik onena eta handiena dela uste dugu. Konfiantza- eta egonkortasun-mezua da, ekonomiaren dezelerazioak eta inflazio handiak markatuta ingurune makroekonomiko zalantzazkoan, eta, gainera, ziur nago horrek aukera emango digula planteatuta ditugun erronkei baldintza hobetan aurre egiteko.

Adegik negoziazio-prozesuei ekin die egoeraren errealitatea kontuan hartuta, erantzukizunez, sektore eta enpresa bakoitzaren egoeretara egokitzeko gaitasunez eta etorkizunari begira.

Ez dugu astirik negoziatu ditugun zortzi hitzarmenen xehetasunetan eta horien edukietan sartzeko. Baina, metalaren hitzarmena aipatu nahi nuke, Gipuzkoan enpresa eta langile gehien eraginpean hartzen dituelako eta tradizioz beste sektore batzuetarako erreferentea izan delako.

Akordioaren beraren garrantziak eta balioak, gatazkarik gabe lortu izanak gainera, konfiantza eta egonkortasuna sortzen dute, eta hori azpimarratu nahi nuke hasteko. Bestalde, soldata txikienak dituzten langileak babesten ditu Langile horien soldata KPlaren arabera igotzen da, eta soldata altuenek berriz, KPlaren % 85era mugatzen dute haien igoera. Horrela, gainera, bigarren txandaren balizko ondorioak eta inflazioaren hazkundera moteltzen laguntzen dugu.

Era berean, azpimarratu nahi dut negoziazio honek agerian uzten duela akordioaren kultura positiboa eta onuragarria dela, elkarrizketan eta konfiantzan oinarritutako negoziazioaren ondorioa.

Amaitzeko, gogorarazi nahi dizuet bihar Adegiren Urteko Batzar Orokorra eta Enpresaren Eguna egingo ditugula. Dokumentazio guztia eman dizuegun karpetan duzue, programa, hizalaria, sariak eta gainerako xehetasunak.

Besterik ez nire aldetik. Eduardo nahi duzunean.